



Ekainean ospatuko den Gazte Eguna´09ren harira, [Barakaldoko Gazte Asanblada](#) k Futbito Txapelketa antolatu du. Gazte elkarteko kideek adierazitakoaren arabera, parekidetasunaren bidea jorretzeko asmoa daukate horregatik, "Barakaldoko neska gazte guztiei dei egiten diegu euren talde propioak (edo mutilekin osatutako talde mistoak) sortu eta parte hartzera".

Talde bakoitzaren gutxieneko partaide kopurua 5 lagunekoa da. Hortik gora, taldeak nahi adina kide izan ditzake. Txapelketan parte hartu ahal izateko, prezio sinbolikoa kide bakoitzeko euro batekoa izango da "gazteon eskubideen eguneroko defentsak guztion ekarpen solidarioa ezinbestekoa baitu".

Parte hartu nahi? Ba hala izanez gero, epea apirilaren 25a artekoa da, horretarako bi bide daudelarik. Bata, Makala gaztetxetik hurbildu eta bertan izena ematea. Bigarrena, barakaldogaztea@gaztesarea.net helbidera taldearen izena eta harremanetarako telefono zenbakia uztea.

Gazteen aburuz, ekimenaren helburua, ondo pasatu eta gazteon arteko elkar ezagutzan sakontzeaz gain, Barakaldo gazte, gorri eta parekide bat irudikatzea izango da. "Gazte Egunari begira motorra berotzeko aukera ezin hobea". Final handia Gazte Egunean jokatu da.

GAZTE EGUNAREN 2009

EKAINAK 13

FUTBITO

TXAPELKETA

Apunta zaiten
APIRILAREN 25an
baino lehen